



Entitate publikoek eta partikularrek lurra behar badute nekazaritza eta abeltzaintzako proiektu bat garatzeko, Nekazaritza Lurren Funtsera jo dezakete. Bertan, Nekazaritza Lurren Funtsean sartu diren finken zerrenda bat aurkituko dute eta esleitzeko eskaera egin dezakete, egoki irizten badiote. **“Nekazaritza Lurren Funtsean sartutako finken zerrenda”**.

Nekazaritza Lurren Funtsean dagoen finka bat esleitzeko, esleipen eskaera bat egin beharko duzu **“Lurra behar dut...”** lekuan. Inprimakia bete, inprimatu eta eskaera Nekazaritza Bulegoan aurkeztu behar da.

Eskaerari dagokion dokumentazioa Nekazaritza Bulegoetan aztertuko da eta sarrera erregistroa emango zaio. Era berean, horri buruz sortutako edozein zalantza argitu eta behar duen informazioa emango zaio.

Nekazaritza Lurren Funtsean dauden finkek esleitzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu eta bi hilabete igaro ondoren, eskatzaileari jakinaraziko zaio eskaeran eskatutako finkek esleitu zaizkion ala ez.

Baiezkoa bada, titularraren, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuaren eta esleipendunaren arteko lagapen kontratua sinatuko da Bertan, finka lagapenaren baldintzak ezarriko dira. 10/2013 Foru Dekretua, 14.6. artikulua.

Nekazaritza Lurren Funtsean dauden finken esleipen eskaerak aurkezteko epea Nekazari Lurren Funtsean egindako deialdi publikoen bitartez ezarriko da.